

# “ZUBELTZU”

*I. Bertso Paper Sariketa*

**DEBA-ITZIAR**



**ANTOLATZAILEAK:**



DEBAKO UDALA  
ELISKARA SAILA



## Mailak:

- **LEHEN HEZKUNTZA** (1998an jaiotakoak eta gazteagoak):  
Lana: 2 kopia edo bertso bat, gutxienez.
- **DBH** (1994-1997an jaiotakoak):  
Lana: 6 kopia edo 3 bertso, gutxienez.
- **NAGUSIAK** (1993koak eta zaharragoak):  
Lana: 8 kopia edo 4 bertso, gutxienez.

## Sariak:

- **LEHEN HEZKUNTZA:** 1. saria: 50 €  
2. saria: 30 €  
3. saria: 20 €
- **DBH:** 1. saria: 100 €  
2. saria: 50 €  
3. saria: 25 €
- **NAGUSIAK:** 1. saria: 250 €  
2. saria: 150 €  
3. saria: 50 €
- **ZUBELTZU** gai hartuta aurkeztutako lan onenari: 125 €
- Bertso/kopia onenari: 100 €

## Baldintzak:

Sariketa Deba eta Itziarko herritarrentzat antolatuta da, Bertsoak jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon saritu gabeak izango dira. Bertsoen neurria, doinua eta gaia librea izango da. Lanak izenordez sinatuko dira. Izenordea agerian duen gutunazal bat bidali beharko da; barruan, bertsoez aparte, beste gutunazal bat bidaliko da egilearen izenordea, izena, helbidea, jaioturtea eta telefonoa idatziz. Bertso bakoitzari bere ordena zenbakia jarriko zaio. Bertso sorta bakoitzaren doinua jartzea eskatzen da. Bertso sorta batek ez ditu bi sari jasoko. Bi sari hartzeko moduan dagoenari saririk handiena emango zaio.

## Lanak bidaltzeko helbideak:

- Posta elektronikoz: Udala (euskara@deba.net)  
Zuhatza euskera elkarte (koordinatzailea@zuhatza.com)
- Posta arruntez: Debako Udala (euskara saila) - Portu kalea, 1 - 20820 DEBA

**Epea:** abenduaren 18a arte.

**Sari banaketa:** Debako Zero Feria egunean.

**GAZTETXOAK**

## **ATARIKO KATUA**

Atariko katuak  
Lana du gauean ( bis)  
nahi badu xagu hori  
sartu sabelean ( bis)

Ikusmen ona eta  
txispa bere oinetan ( bis)  
abiadura hartu ta  
danba muturretan ( bis)

Doinua: Orbelak airez aire.  
Egilea: Maialen Egia San Martin  
1. saria-Lehen hezkuntzako

## **GABONAK**

Gabon giroan sartzen ai gera  
elur ta kazkabarrakin  
txamarra eta jertsea jantzi  
dagon denboraldiakin  
Olentzero etorriko zaigu  
poltzatxo txiki batekin  
ez ditu gauza asko erosi  
dagoen krisiarekin.

Ostiralean gutun txuri bat  
heldu zan nire etxera  
orduan iriki ta jartzen zuan  
" erregek parun daude ba"  
larunbatean beste gutun bat  
iritsi zan portalera  
eta gutun hartan jartzen zuen  
" broma txiki bat izan da".

Doinua: Ari naizela, ari naizela  
Egilea: Mikel Elortza Romera  
2. saria-Lehen hezkuntza

## **KOPLAK**

Txoritxo non zabilta  
alai ta kantari  
etxera etorri zaitez  
bihotzan pozgarri

Zuhaitzik zuhaitzera  
pozikan zabilta  
etorriko zarela  
emadazu hitza.

Doinua: Orbelak airez aire.  
Egilea: Agurtzane Valenciano Beristain  
3. saria-Lehen Hezkuntza

## **BERTSOLARITZA EREDU**

Euskaldunon kultura  
da oso zabala (bis)  
bertsolaritza ez da  
eredu makala (bis)

Maialen Lujanbio  
txapeldun berria (bis)  
neska hori bai dela  
garaile argia (bis).

Doinua: Orbelak airez aire  
Egilea: Jon Amutxastegi Muguruza

## **KOPLAK**

Pelota gustatu zait  
neri betidanik (bis)  
Gonzalez miresten det  
joan zen urtetik (bis)

Irujo ta Olaizola  
ere onak dira(bis)  
Irujok Olaizola  
garaitzen du di-da!( bis)

Ni ere oso-oso  
trebea naizela (bis)  
jendearen txalok  
alaitzen nautela (bis)

Doinua: Orbelak airez-aire  
Egilea: Gaizka Aldalur Urresti



## **GABONAK**

Hogeitalau gauean  
Olentzero dator (bis)  
opariak utzi ondoren  
hegan joan da jator (bis)

Hogeitabost goizean  
beteta zuhaitza (bis)  
astoak ere esan du  
lehenengo hitza (bis).

Doinua: Orbelak airez aire  
Egilea: June Izagirre Santana

## **TXAKUR KAKAK**

Ateratzen dituzte  
txakurrak kalera (bis)  
gero kale erdian  
kaka lagatzera (bis)

Kalera joatean  
zapaltzen direnak(bis)  
gero usain txarra  
hankek dituztenak (bis)

Doinua: Orbelak airez aire  
Egilea: Julen Gorriti Nogales

## **LANDAREAK**

Landare mota asko  
daude mundu honetan  
Nafarroan, Araban  
baita Gipuzkoan  
Hemen ondoan ere  
Andutz gailurrean  
naturarekin bizi  
gaitez gu bakean.

Doinua: Maritxu nora zoaz  
Egilea: Ainhoa Salegi Alvarez

Bost gera familian  
anaia det Aitor  
anaia det Aitor  
arreba berriz Amaia  
ta Iñigo jator  
ta Iñigo jator.

Mendaron jaioa naiz  
eta Deban bizi  
eta Deban bizi  
hamar urte ditut eta  
hamaika kasi kasi  
hamaika kasi kasi

Pilota gustatzen zait  
saskia futbola  
saskia futbola  
mendia ez det aparte  
baita diabola  
baita diabola.

Doinua: Ama begira ezazu  
Egilea: Iñigo Muguruza Lizarralde

Ni Debatarra naiz ta  
Izena det Aitor  
Izena det Aitor  
Gustoko dut pilota  
Jokatzera nator  
Jokatzera nator.

Doinua: Ama begira ezazu  
Egilea:Aitor Muguruza Lizarralde

## **GABONAK**

Gabonak dira eta  
hau da zoriona (bis)  
gure Jesus jaio da,  
hau de berri ona (bis)

Txuri-txuri jantzia  
daukagu mendia (bis)  
elurra ari du ta,  
hau da poz handia (bis)

Zoro ferian al da  
Edozer erosi (bis)  
Itsu batek ere  
Alko luke ikusi (bis)

Urte berri polit hau  
Ondo ospatzeko (bis)  
Talo bat erosi bai  
Gustora jateko (bis)

Doinua: Orbelak airez-aire  
Egilea: Malen Egaña Fernandez

## **GABONAK**

Laster gabonak dira  
dator Olentzero (bis)  
ta gero erregiak  
denak bero bero (bis)

Urtea bukaeran  
gure Olentzero (bis)  
Mari Domingirekin  
dator egunero (bis).

Doinua: Orbelak airez-aire  
Egilea: Nerea Almortza Osa

## **ESKOLA**

Niretzat eskola da  
gauzarik txarrena  
txanela ta euskera  
mate okerrena.

Aurten hogeitabian  
Oporrak artzeko  
Play-an biziatzeko  
Eta jolasteko.

Doinua: Orbelak airez-aire  
Egilea: Ander Arakistain Salas



## **GABONAK**

Gabonak laster datoz  
baita Olentzero (bis)  
Mari Domingi ere  
ditugu espero (bis)

Olentzero izaten da  
etortzen lehena (bis)  
gero erregeak ta  
bizar zuri azkena (bis)

Doinua: Orbelak airez-aire  
Egilea: Maria Ruiz Morcillo

## **GABONAK**

Laster gabonak dira  
dator Olentzero(bis)  
ondoren erreak  
Bizar zuri gero (bis)

Urte osoan zehar  
ondo portau behar da (bis)  
hogeitabost goizean  
alaituko gara (bis)

Doinua: Orbelak aireez-aire  
Egilea: Leire Martiartu Miranda

## **GABONAK**

Nire etxeko gelan  
arbola dagola (bis)  
eta zintzilik daude  
aingeru ta bola (bis)

Erregeak ere bai  
dituzte opariak (bis)  
neri ekarri zizkidan  
bi txakur anaiak (bis)

Doinua: Orbelak Airez-aire  
Egilea: Ane Urkia Arrizabalaga

## **BERTSOLARI TXAPELKETA**

Aurten Maialen dela,  
gure irabazlea.  
Jantzi du txapela ta,  
Irtenda kalera.

Andoni atzean da,  
uste dut laugarren.  
Maialen aurrera ta,  
ez gelditu atzen.

Doinua: Orbelak Airez-aire  
Egilea: Maite Aldabaldetrek

## **FUTBOLA**

Madrileko pitxitxi  
Raul eta Guti  
horregatik Ronaldo  
triste dago beti.

Madrilek jolasten du  
gaur Barsaren aurka  
Ronaldok esan dio  
Puyaleri aupa!.

Madrilek sartu dio  
kriston goleada  
Barsakoa negarrez  
korrikan joan da.

Niri gustuko diren  
talde politxenak  
Madril ta Barsa dira  
Munduko onenak.

Doinua: orbelak airez-aire  
Egilea: Iñigo Jimenez

## **GABONAK**

Laster Gabonak dira  
dator Olentzero( bis)  
baita ere Erregeak  
pixkat beranduago (bis)

Dena dekoratzen da  
Gabonetarako  
nire etxean behintzat  
dena prestauta do (bis)

Etxe gehienetan bai  
jartzen da zuhaitza (bis)  
beste batzutan berriz  
prestau da jaiotza.(bis)

Urte berri egunean  
jaten dira mahatsak (bis)  
kanpaikada horiek  
ez dira oso motzak (bis)

Olentzero ta errege  
denak opariakin (bis)  
umeei emateko  
esperantziakin (bis)

Opariak askotan  
gustokoak dira (bis)  
guri iruditzen zaigu  
politik dirala (bis).

Bizar zuri etortzen da  
Deno agurtzera (bis)  
Erregei laguntzera  
Ere pasatzen da (bis).

Olentzero izaten da  
etortzen lehena (bis)  
gero Meltxor, Gaspar ta  
Baltasar azkena (bis).

Doinua: Orbelak Airez-aire  
Egilea:Amaia Ajuriagoikoa

## **BERTSO TXAPELKETA**

Urte hau bukatu da  
ere txapelketa  
Maialen txapelduna  
irabazi du eta.

Andoni lau urte  
segidan irabazi  
urte onetan ez du  
txapelarik jantzi.

Doinua: Ama begira zazu  
Egilea: Ane Feijoo



## **FUTBOLA**

Futbola da neretzat  
kirol earrena  
nire lagunak ere  
gustuko dutena.

Mutilak omen dira  
futbolari onenak  
egiten dituztelako  
regate, txilenak

Doinua: Orbelak airez-aire  
Egilea: Maria Aizpurua

## **ANDEREÑO**

Guk badaukagu eskolan  
andereño alaia  
bera engainatzea (maitia)  
izango da zaila.

Haserretzen denean  
jartzen da gorria  
ta jatorra denean (maitia)  
ipintza da horia.

Doinua: Ikusi nuenean  
Egilea: Maitane Morcillo Becerra

## **KOPLAK**

Ni basora juten naiz  
perretxiko bila (bis)  
eta aurkitzen ditut  
kriston onddo pila

Etxera bueltatzian  
daukat bazkaria (bis)  
rebuelto izugarria  
eta filetia. (bis)

Doinua: Orbelak airez-aire  
Egilea: Alex Treku Iriondo

## **BERTSOLARI TXAPELKETA**

Irabazle berria  
izan dugu aurten  
denetan haundiena  
izan da Maialen.  
Arzallus bigarrena  
Sarriegi azken  
eta Andonik du bai  
postua laugarren.

Doinua: Maritxu nora zoaz  
Egilea: Miren Ostolaza Larrañaga

Kirolari batzuetaz  
asko entzun dut nik (bis)  
nola duten izena  
batzuk badakizkit ( bis)

Alberto Iñurrategi  
mendizalea da (bis)  
joan zen Everestera  
baita Alpetara ( bis)

Aritz Aranburu bai  
da oso abila ( bis)  
surflaria ona da  
ta oso agila ( bis)

Beste asko badaude  
hori badakit nik (bis)  
baina ez dau gogorik  
aurkitu ezak hik (bis)

Doinua: Orbelak Airez-aire  
Egilea: Jon Yarza Martinez

## **KOPLAK**

Nire lagunek ta nik  
beti arrantzatzen(bis)  
baina inoiz ez dugu  
ezer harrapatzen (bis

Datorren udan asko  
arrantzatuko dut (bis)  
eta nire etxean  
pangak jango ditut (bis))

Doinua: Orbelak airez-aire  
Egilea: Iker Leiro lopez

## **DEBAKO PISZINA**

Deban hondartza dago  
baina pizina non?  
behar da beti beste  
herri batera jun

Gu kexazen gera ta  
baina noiz egingo  
ez digute ingo ta  
jolastu behar bingon.

Doinua: Orbelak airez-aire  
Egilea: Malen Turrillas Rodriguez

## **DONOSTIA**

Euskal Herrian daude  
zazpi probintzia (bis)  
horietako bat da  
Gipuzku maitia (bis)

Donostia hiriburu  
guztiz atsegina (bis)  
ta errealia guztion  
talde oso bikaina (bis)

Doinua: orbelak airez-aire  
Egilea: Lorena Egaña Iparagirre



## **LARUNBAT BATEKO ARRATSALDEA**

Goxokiak erosten  
gabiltza kalean,  
gero pelikula bat  
ikusi etxean.

Palomitak, patatak  
pelia ikustean,  
pelia bukatzean  
denak jolasean.

Doinua: Maritxu nora zoaz  
Egilea: Udane Oiartzabal Zinkunegi

## **HIZKUNTZA**

Hizkuntza asko daude  
mundu ingurutik  
Frantses abandonhher  
Esaten da hortik  
hizkuntza handiena  
izanda latina  
hizkuntzek osatua,  
superau ezina.

Doinua: Maritxu nora zoaz  
Egilea: Gorka González

## **ELURRA**

Egun hauetan in du  
Elurra ugari (bis)  
Kostaldean itia  
Hori bai mirari (bis)

Nire etxean behintzat  
Ia bi metro elur (bis)  
Hotza ere egin du  
Txoritxoak beldur (bis)

Doinua: Orbelak airez aire  
Egilea: Iratz Fernández

## **ITSASOA**

Itsadoan daudela  
Animali pila  
Ta gu joaten gara  
Beti haien bila

Uretan sartzen gara  
Freskatzeko pixkat  
Batzutan egon laike  
Hortik marmokan bat

Doinua: Orbelak airez aire  
Egilea: Julen Maza

**GAZTEAK**

## GURE HIZKUNTZA

Euskera hizkuntza gurea,  
zaharra baina ederra.  
egunero gure ahotan  
ibili behar litzake(e)na.  
Txoko txikitxo batean  
bakarrik geratu dena,  
baina jendeak oraindik  
biziki maite duena.  
Ez laga alperrik galtzen,  
da ta sortu gintuena.  
Ta euskaldun guztiontzat,  
maitasunezko poema.  
Europa kontinentean,  
zabaldutako lehena  
ta gu guztion arbasoek,  
lur hon(e)tan sortu zutena.

Euskeran aurka daudenei,  
nahi nieke esan zera:  
zuek zer usten duzue,  
bizitza ta herri gera.  
Nahiz ta desberdina dugun  
guk hitz egiteko era,  
laga aurrera egiten  
baita izaten norbera.  
Zuhatza pilaz beteta  
dugu azkenaldian Deba,  
kemenez lortu bai leike  
Ez egitea guk be(he)ra.  
Baina oraindik ez da ho(rre)la,  
beharko egin guk greba.  
Barruan mina baitaukagu,  
Ez galdetu zuek zeba.

Urrun preso daudenekin  
sartu ziguten ziria,  
bidaliz pikutara ta  
debekatu nahiz geuria.  
ikurra izanagatik  
umila den gure ardia,  
Botako genien gustura,  
burutik be(he)ra tranbia.  
Nahiz oraingo egoera  
ez izan guztiz argia.  
Hau daukagu zabaltzeko  
tarina bai kantaria:  
" Euskal presoak etxera  
ta libre egunkaria!".  
Gure Lingua Navarrorum-ek  
merezi duen saria.

Doinua: habanera  
Egilea: Alaitz Eskudero  
1. saria-DBH

Protagonista da gaur  
mendian elurra  
hoztuak ditut jada  
hankak ta sudurra  
beraz pizten ari naiz  
tximinian egurra  
ta neguko gauari  
diot nik beldurra.

Etxola daukat etxe  
Etxezain txakurra  
" pozik nago esaten dut  
baina da gezurra  
hala ere zu hor zaude  
ukituz gailurra  
ta inbidiaz jausten zait  
ahotik adurra.

Baten sartu zenidan  
bihotzen atxurra  
ta gaur eskaintzen dizut  
nire azken agurra  
bete itzazu  
bisitatuz Lurra  
bizitza bizi ezazu  
baita oso laburra.

Egilea: Irati BAROJA  
2. saria-DBH



**HELDUAK**

## ITZIARKO ESKOLA

1.

Dedan abildade gutxiz,  
arkatzari punta hautsiz,  
paper batean, hiru ordutan  
lau lerro idatziz;  
lasaitu behar det egiz,  
eta alaitu aurpegiz,  
Itziartikan debar guztiei  
mezu hau bidaliz.

2.

Politikatik aparte,  
trapu zaharrek zenbat kalte!  
Ehunka haurren aita-amak gera:  
Guraso Elkarte.  
Lanean hasiz jo ta ke  
jo ditugu hainbat ate,  
politikoek hemen eragin  
handia daukate.

3.

Bor-borka dugu odola,  
sentipenen zirimola...  
nabari degu herri osoa  
gurekin dagola;  
guraso denon axola:  
umeak non eta nola?  
Etzetik gertu jarri nahi dugu  
beraien eskola.

4.

Entzun Lastur ta Endoiari!  
Elorrixa ta Mardari,  
kaletik bertan Itxaspe, Egia,  
ta Arriolari!  
Lehenen dei bat udalari,

gero Hizkuntza Sailari,  
dagokiena emaiozue  
gure sendiari!

5.  
Zazpiterdian gora!,  
gosaltzeko ze ganora...  
benga, mugitu, gure Arteondo  
laster izango da!  
Amak muxu eta lora,  
gauean bueltan altzora:  
ordu gehiegi ez al dituzte  
etxetik kanpora?

6.  
Neke ta lo falta etsai,  
garaiz jaiki ezean jai;  
ikasgelatik gertu dagona  
lotan dago lasai.  
Petralduta, negarrez, ai!  
Amak ere begiak blai...  
Guk hori gendun, gureentzako  
ez dugu hori nahi!

7.  
Ehunka haur gelatara  
eta bertatik bertara;  
ateratzean alaitasuna  
dator kaleetara.  
Gazte-jendeak anpara,  
aiton-amonek algara;  
herri osoak babesten du ta  
seinale ona da!

8.  
Gure era elkartuan,  
zahar ta gazte tratuan:  
indar handia egingo dugu

Eskola kontuan.  
Izan zazue kontuan  
beharrezko momentuan,  
mila bihotzen ahotsa jardun  
dutela kantuan.

Doinua: *Aizak hi mutil mainontzi...*  
Egilea: Jose Angel Salegi Arriola "Lizarreta"  
1. saria-Helduak

## **ARBIL**

Arbil mendi gainetik  
Jarri naiz begira  
Ez da nolana hiko  
Duen ikusmira  
Leku ikusgarriak  
Oraindik badira  
Ez dago joan beharrik  
Oso urrutira

Esango dut hemendik  
ikusten dudana  
begirada batean  
mendia da dana  
nor den nor ezagutzen  
hartu dut gaur lana  
izendatuko ditut  
denak banan bana

hasi Arnotik eta  
ondoan Garailutz,  
Gaintxipixa, Otarre,  
Lizarreta, Andutz  
Hegan baneki eta  
Haizeak egin putz  
Aidean joan ninteke  
Batetik besteruntz

Mendia da basoa,  
Basoa da zura  
Itsasoan gainezka  
Dago berriz ura  
Zer da bada bestela  
Han ia eskura  
Amaiera gabeko  
Zelai urdin hura?

Lasturko baserrien  
Teilatu gorriak  
Antzeman ditu nire  
Ikusmen urriak  
Zezen beltzek iduri  
Dute inurriak  
Urrunetik ez dira  
Hain beldurgarriak

Jakin nahi duenak  
Non dagoen Arbil  
Betor Lastur aldera,  
Itziartik hurbil  
Gaintxo bat baino ez da  
Apal eta umil  
Gutxiesten duena  
Okertuta dabil

Egilea: Jokin Lasa Esnaola  
2. saria-Helduak

# **EGUNKARIAREN AURKAKO EPAIKETA**

## **1. AUDIENTZIAK:**

Asociación de Víctimas...  
Dignidad, Justicia y ¿qué más?  
De esta guisa comenzamos hoy  
una audiencia de lágrimas...

## **2. BOST AUZIPETUAK:**

Urianahiz Otamendi,  
Torrealdai ta Auzmendi,  
Oleagakin batera gatoz  
gezur ustel baten gaindi.

## **3. EPAILEAK:**

Has dezagun epaiketa:  
Egunkaria da ETA!  
Aitor ezazu lehenbailehen dena  
astirik ez daukat-eta!

## **4. AUZMENDIK:**

"Ukatu egozpen denak!"  
Halaxe diost barrenak;  
kontzientzia lasai baitauka  
txarrik egin ez duenak...

## **5. EPAILEAK:**

Ezeztapen biribilak...;

baina ez egon trankilak,  
zeren bertsio desberdina du  
zuenaz Guardia Zibilak.

## **6. URIAk:**

Astindu zuten makila,  
bihurrituz orkatila:  
egi bakarra horixe da ta  
behingoz argitu dadila!

## **7. EPAILEAk:**

Euskaldun kazetaritza:  
tinta gorrizko lapitza...  
Aitor ezazu zurea zela  
indarkeriaren hitza!

## **8. OLEAGAk:**

Euskara da nire ama;  
nire luma, nire arma:  
nire hizkuntza maitatze hutsak  
galbidera al narama?

## **9. EPAILEAk:**

Administrazio Kontseilu:  
odol-diruen zigilu...  
Ondo dakigu zuena zela  
terroristen bozgorailu.

## **10. TORREALDAIk:**

Euskara adierazpide,



askatasun adibide:  
Egunkaria beti egon da  
bekaizkeriatik libre!

### **11. EPAILEAK:**

Zu ei zinen zuzendari;  
beraz, hitz egizu garbi!  
Inork ez dio adarrik joko  
Audientzi Nazionalari!

### **12. OTAMENDIK:**

Gezurren perbertsioa:  
Madrilgo obsesioa.  
Zuengandikan soilik nahi degu  
boston absoluzioa.

### **13. HERRIAK:**

Audientziko erregela:  
euskararentzat kartzela.  
Euskaldun sena delitu bada  
atxilotu gaitzatela!

Doinua: Santa Ageida, Ageida...  
Egilea: Rikardo Idiakez  
3. saria-Helduak

## ESKOLA TXIKIA

- 1.- Hementxe dator "kaxerito" eta  
hortxe dator "kaxerita"  
hori izaten zen, Debara jeitxi  
ta egunonaren gonbita  
hau egunero entzun beharra  
ez pentsa zenik polita  
gu kanpotarrak izatearekin  
nazkatzen geunden hasita  
oroitzapenak oraindik dauzkat  
garunetik zintzilika  
ta orain gure seme alabak  
berriz hasten ikusita  
hobe izango da Itziartarron  
eskolatxo bat jarrita  
guk pasatako eskolaldia  
ez dezaten errepika.
  
- 2.- Guraso elkarte, irakasleak...  
haurrak nahikoa badira,  
bitik sei urte bitartekoak  
doaz eskola-txikira,  
zazpi eta zortzi urteko haurrak  
bertan ditugu desira!  
eskolaldia luzatu nahia  
mantso-mantso hamabira  
Aizarnakoa, Oikia, Aia....  
adibide onak dira,  
Itziarkoa, beste bat geio  
izando balitz sikira!  
beraz begiak jarri ditugu  
udaletxera begira  
gure eskaerak zakarrontzian  
amaitzen duten tokira.
  
- 3.- Gero udaleko, mitina gendun  
ea ba zer gertatzen dan?

“ udala ez da konpetentzia”  
hor ezan zuen haseran,  
“irreversible!, irreversible”  
Franco txi batn eran,  
eta baiezko boto xume bat  
gizon txintxoan tankeran,  
gero ilobak hor galdetu dit  
“zergatikan dauden teman?”  
aurpegiz goibel bi esalditxo  
esan dizkiot hileran:  
nahiz jende ona baden oraindik  
etzait ezer galdu Deban,  
gauza gehiegi kendu bait digu  
et ezer gutxi eman.

4.- “Alper xamarrik, etorri gera”  
egin genuen balantzea  
ez da errexa, udal honekin  
aurrera begiratzea,  
hobe izango da, puntu guztiak  
berriro ondo lantzea  
astindu udala, Hezkuntza saila,  
aurrea eta atzera!  
etzazu pentsa boto horrekin  
orain lasai geratzea!  
okerro baita txupatxusa eman  
eta eskutik kentzea  
badagoenez elkartasuna  
badenez malaletxea  
lortuko degu, “txiki” batetik  
Eskola-Haundi bat sortzea

Egilea: Josu Izagirre Arakistain  
Bertso onenaren saria: 1 bertsoa

**ZUBELTZU BERTSOLARIA.-**

mendearen azkenean,  
paregabeko Mardari  
Itziarko auzunean,  
Jose Antonio mundura  
erditua zen unean,  
nork pentsatu zer garrantzi  
zatekeen ondorenean,  
aitzindari bihurtu zen  
hemengo bertso lanean,  
bidea urratu zenuen  
zuk unerik zailenean,  
gaur umezurtz ginateke  
zu gidaritzan ezean,  
horregatikan zaitugu  
oraindik oroimenean.

Zubeltzu-Zahar baseritik  
Bertso kantari hasita,  
Plazaz plaza eta nonahi  
Bertsoetarako zita,  
Igande arratsaldetan  
Santuarana bisita,  
Uztapide ere hantxe  
Olaberitik jaitsita,  
zenbat bertso ote dago  
horma haietan itsatsita?  
Une zirrargarriak  
Zuek kantari ikusita,  
Zuek ereindako lurra  
Gaur dago lorez jantzita.

Bizitza beti bizitza  
gozo-mikatz hotz eta bero,  
lehen ere horrela zen  
eta izango da luzaro,  
baina urte garratz asko

zenituen zuk igaro,  
gerra krudel bat tartean  
gero gosea bezero,  
miseria zen garaile  
ezer ere ez oparo,  
euskarari jasarpena  
bazuen nahiko borrero,  
zure bertsoak ziren bai  
euskararentzat abaro,  
gaur gara zu zinelako  
eta izango gara gero.

Gerra ondoren garratza  
garratzikan bada ezer,  
kupidarikan gabeko  
zenbat egoera anker,  
sendi askotan negarra  
txikituak hainbat bazter,  
euskara debekatua  
erraiak nahi zituzten leher  
euskara itoz geroztik  
bertsoak galtzear laster,  
baina gotorlekuetan  
gorde zenuten zeozer,  
aitaren etxeak zutik  
iraun badu halaber,  
neurri handi baeen da  
zuen bertsoeri esker.

Mila bederatziehun ta  
berrogeita hemeretzian,  
omenaldia eskaini  
sortu zinaden herrian,  
urte asko joanagatik  
daukagu oroimenean,  
herritar danak irrikaz

diosal zuri egin nahian,  
Palo harria jasotzen  
zu begira han balkoian,  
orduan ere Manuel  
zenuen aldamenean,  
haren bertsoek hunkitu  
zintuen une batean,  
zioen: "nire onenak  
hiri ikasi nizkian"

Zubeltzu hantxe balkoian  
bihozbera sentiberan,  
bihotzez eskertu zuen  
herritarren arrera,  
baina sentimendu danak  
hitzez nola azalera,  
bihotzak agintzen zuen  
hitzak kasikan sobera,  
begiak lausoturikan  
bi tanta masail aldera,  
bi begi haien distira  
eta bertsoak airera  
maitasun sentimenduak  
alde batetik bestera,  
maitatzen zuen herriak  
zenbat maite zuen bera .

Zure ospera ez zegoen  
Itziarra mugatua,  
herriz herri bertsoetan  
nola zinen aritua,  
asko zenuen emana  
asko zinen saiatua,  
Gipuzkoan bereziki  
zinen oso maitatua,  
horregatikan Donostin

berriro ere omendua,  
zazpi herrialdeetatik  
jendetza inguratua,  
Zubeltz udenen ahotan  
berrea zen meritua  
zuk sortutako ur-tanta  
bihurtu sa olatua.

Nekazaritza izan zen  
Jose Antonion langintza,  
baso-lanetan soroan,  
eta sarritan itzaintza,  
inoren aginduetara  
morrontzak duen baldintza,  
lana galanki egin bai  
baina urria emaitza,  
ez zuen bikoterikan  
bakardadean bizitza,  
urteekin zimelduaz  
lehen sendo zen haritza,  
Lasao-Handi izan zuen  
Zahartzarorako egoitza,  
Han ixildu zen betiko  
Eta han eman azken hatsa.

Itziarko atalaiatik  
ortzira nago begira,  
Mardariko inguruan  
bi izar ageri dira,  
hor dabilta joan-etorri  
etengabe jirabira,  
Zubeltzuren bi begiak  
dira so bere herrira,  
gozo abestu nahi nuke

izpi horien argira,  
baina nik ezin dut egin  
merezi duzun neurrira,  
zer esan herritarrikan  
kuttunenaren harira,  
inoiz ez da itzalduko  
zure bertsoen distira.

Doinua: Habanera  
Egilea: Karlos Larrañaga Ostolaza  
Zubeltzuri propio jarritako bertso sorta onena

## **ANDUTZTIK BEGIRA**

1. Lengo batean zapaldutzean  
Andutzko mendi tontorra  
buelta osoa emanaz bota  
nun begirada bizkorra  
Itziar naukan begi aurrean  
euskaldun eta jatorra  
Udalbarrutik ez izatea  
eiten zitzaidan gogorra  
nola demontre utzi nahiko du  
Debak holako altxorra.



2. Larraskandatik Aittola aldera  
handik Ekaingo kobara  
Endoitik Arrua errekarra  
zuzen ia Zumaiara  
Elorrixatik Itxaspera ta  
Egiatik Arriolara  
Sasiolatik Lasturren gora  
Itziarra iritsi hara  
hor egin degun buelta osoa  
gure Itziarren muga da.

3. Hemendik ikusten dan guztia  
ederra baita benetan  
zenbat abere inguruetan  
mendi ta zelai berdetan  
ardi, behor, zaldi, pottoka ta behi  
betizuak batzuetan  
zezenak ere jatorria dute  
Itziar zabal honetan  
hauekin asko gozatzen dira  
Euskal Herriko jaixetan.

4. Itziartarrak eskau bai baina  
Debak ez du nahi banatu  
aspaldi hasitako gaia da  
dexente ein da luzatu  
nahiz nahi deguna eskuratzea  
guztiori asko kostatu  
eskatzen hasi ezkerro hauxe  
egingo nuke eskatu  
Euskadi Españatik aske ta  
Debak Itziar askatu.

Doinua: Euskal Herriko lur maite hartan II

**ZUBELTZURI**

Elorrixako baserri baten  
jaio zitzaigun gizona  
baserri hori Zubeltzu bait zen  
gero fama eman ziona  
beti entzun det jatorra zala  
lagun artean kristona  
gizon bezela itzela eta  
bertsolari oso ona.

Doinua: Ari naizela, ari naizela  
Egilea: Jose Ramon Arrizabalaga Urbieta "Lizarran"

## **ZUBELTZURI PROPIO**

Plazatik plaza maiz ibilia  
Hamaika bertso egina  
Bertsolarien eredu zinen  
Horixe da gauz jakina  
Adierazteko asmoarekin  
Zuganako atsegina  
Aitortu dezan deba osoak  
Zubeltzuren ahalegina

Badago orain dagoeneko  
Torero eta surflari  
Frontoiarekin izango denez  
Benetako pilotari  
Egin beharko dira bai deban  
Horrelako hainbat sari  
Jaio dadila herri honetan  
Zu hainako bertsolari

Egilea: Jose Luis Sudupe de Benito

## **JOKATZAILE BATEN KONFESIOA BERE LAGUNARI**

Azpaldi egin zenidan lagun  
Arazoaren kargua  
Ezaizu ezer ere komeni  
Apustutako mundua  
Lehenengo galduko bai dituzu  
Lagunak eta dirua  
Gero ohartu baino lehenago  
Galduko dezu burua

Apostatzen hasita nengoen  
Berdin berdiña zen zertan  
Saski baloia pilota edo  
Futbol partida batetan  
Nuena baino diru gehiago  
Botatzen bai nuan bertan  
Hor hasi nintzen diru eskean  
Eta gero gezurretan

Ordenagailua bihurtu zen  
Nere bizitzan jabea  
Lagunetatik urrundu eta  
Gertu zen bakardadea  
Eta orduan sartu zitzaidan  
Benetako nahigabea  
Miserablea sentitzen nintzen  
Bate balio gabea

Hortik aurrera dena joan zen  
Gero eta okerrago  
Kate lodiak sentitzen nitun  
Nere gezurren esklabo  
Ni askatzera agertu ziñen  
Berandu baino lehenago  
Orduan pentzatzen hasi nintzen  
Hain bakarrikan ez nago

Hainbeste gezur eta putada  
Lagun jasanak dauzkatzu  
Min eta traizio ugari  
Nola izan naiz hain itxu  
Orain gauzak aldatuko dira  
Nahizda hitzak izan antzu  
Zendatu egingo naizelako  
Arren barkatu nazazu

Nire erruaz gauza ugari  
Izan dezu kalterako  
Nigatik aurpegia atera  
Sari gutxi zuretzako  
Egin dezun esfortsu guztia  
Niretzat asko delako  
Esan nahi dizut lagun maitia  
Bihotzez eskerrik asko

Doinua. Haurtxo txikia

## **ZUBELZU**

Hark zuen griña ta xarma hura  
Baneukan joateko ohitura  
Abentura asko bizitzen nuen  
Zubelzu zuen deitura (bis)  
Eman zioten klausura  
Beste zinemen modura  
Norena ote ardura  
Han bizitako sentzazioak  
Etortzen zaizkit burura  
Astero sentitzen nuan hura  
Nahiko nuke berreskura (bis)

Egilea: Asier Oñederra

1

Doinu bat ailatu zait  
"zirristi-mirristi"...  
Laboaren ondotik  
beti amesti.  
Lagunik baldin badu  
bera ziur aski,  
erretatuko baitu  
bertsoetan noski!  
Bera da Eguzki  
hamaika-bat izpi  
goxo eta ezti  
guretzat ez gaizki...  
Neguaren beroa:  
Martin Aristi.

2

Garbi-garbi datorkit  
kantuaren hotsa  
une ederrak, onak  
eta oroitza.  
Tonua aldrebes jo  
irriparra lotsa,  
molda zezaken dena  
erraz hanka-motza.  
Sentipen bikoitza  
zatika bihotza  
beroa zein hotza  
barruak diosta...  
gogorapen goxoez  
urtu izotza.

3

Abotsa luze-luze  
hamarka alarau  
doinuetan irauli  
zazpi bat arau,  
lerro kontuan, berriz,  
inoiz ez dira lau  
eta horretxek berak  
adituz jartzen nau,  
horretantxe dirau  
bertso ale, garau  
janik gabe, barau  
juerga ziteken hau...  
Eguna antzaldatuz  
bihurtu da gau!

4

Irribarre zabala,  
saltoka bizarra.  
Dagoen dagonetik  
jotzen kitarra,  
akordeak kolpeka  
sortzen tirri-tarra,  
begitatiek darion  
barneko indarra.  
Beti herritarra,  
urredun zilarra,  
mendien ibarra,  
guretzat iparra...  
Ortzian ikusten dut  
zure izarra!

Doinua: Mikel Laboaren "*gaztetasuna eta zahartasuna*"  
Egilea: Jon Esturo

## **IRAKASKUNTZAN LANEAN**

Denbora dexente damat  
Irakaskuntza lanetan  
Bizpa-hiru hamarkada  
Joan dira azkar benetan  
Ikasle asko izan ditut  
Jatorrak garai denetan  
Pertsona hunkigarriak  
Dauzkat nire gogoetan

Saiatu naiz irakasten  
Euskal Herria maitatzen  
Ta gure kultura zaintzen  
Bertso mundua ezagutzen  
Zaletasuna bultzatzen  
Euskara ondo erabiltzen  
Pertsona onak izaten  
Berdintasuna eskatzen

Ba laister iritsiko da  
Ni jubilatzekeo eguna  
Alde batetik hau poza!  
Bestetik, berri tristura  
Ez ditut sekula ahaztuko  
Ikasleen alaitasuna  
Ez kideek emandako  
Mimo ta goxotasuna

Ondo aritu ote naiz?  
Galdetu izan det sarritan  
Beraiek daukate hitza  
Ikusi ditut pozikan  
Bertso hau egina dago  
Haurren oroimenetikan  
Besarkada izugarri bat  
Adereñon partetikan

Doinua: Habanera  
Egila: Marian Larrañaga